

KAMISHIBAIA

Helburua: kamishibai bat sortu eta LH-n ahoz kontatu.

Taldekatzea: nahiko librea da; 1-4 ikasle izan daitezke.

Testu tipoa: ipuina.

Luzera: taldeko ikasleen kopuruaren arabera.

Ikasle bakar bat: 6 orri.

2 ikasle: 10 orri.

3 ikasle: 14 Orri.

4 ikasle: 16 orri.

Saioak: 6 saio.

Materiala: kartulinak (ikastetxeak emango dizkizu), ordenagailua, pinturak,
boligrafoa...

Prozedura:

1. SAIOA

1.- Taldeak osatu.

2.- Gaia aukeratu.

3.- Narratzaile mota erabaki. 1. pertsonan, 2. pertsonan edo 3. pertsonan idatzita egon daiteke.

4.- Pertsonaiak zehaztu. Pertsonak, animaliak edo gauzak izan daitezke. Kontuan hartu behar duzu zenbat lagun zaudeten taldean. Narratzailea ere kontatu behar duzu, ikasle bat narratzailea izango delako. Bestalde, saiatu behar duzu testu kantitate berdintsua idazten guztientzat, ahozkoan desoreka nabariak gerta ez daitezen.

5.- Ipuinaren egitura zehaztu.

HASIERAKO EGOERA		noiz, non, nor(tzuk), nolakoa...
KORAPILOA	ARAZOA	Zer gertatuko da hasierako egoera orekatua hausteko?
	EKINTZAK	1.-
		2.-
		3.-
		4.-
		5.-
		6.-
		7.-
		8.-
	KONPONBIDEA	
BUKAERAKO EGOERA		

2. eta 3. SAIOAK

6.- Testua ekoiztu. Testu literarioa denez, elementu batzuk kontuan hartu behar dituzu:

- 1.- Hartzaileak. Txikiak dira, eta hizkuntza haiei egokitua egon behar da, haien ezagutzara hain zuzen ere; horrek ez du esan nahi hizkuntza sinplea erabili behar duzunik. Bestalde, ekintza ugari baditu hobe, haurrak ez nekaraztearren. Ez ahaztu onomatopeiek leku garrantzitsu dutela ipuinetan.
- 2.- Narrazio testuaz gain, deskripzioak eta elkarrizketak egon daitezke. Kontuan har, beraz, testu hauen ezaugarriak.
- 3.- Hizkuntza landua. Ez bakarrik zuzen, baina ohikoak ez diren egitura sintaktikoak ere erabili behar dituzu.

4. SAIOA

7.- Testua irakasleari eman birpasa dezan.

8.- Testua berregin.

5. eta 6. SAIOAK

9.- Testua orrietan banatu. Orri bakoitzean hiru-bost lerro egon beharko lirateke, ez gehiago. Letra handi-handian idatzi, erraz irakur dezazun. Marjinak gorde. Kontuan har butaiaren neurriak.

10.- Irudiak egin. Marjinak gorde. Kontuan har butaiaren neurriak.

11.- Ekoizpena eman irakasleari. (DENA, ez bakarrik azken ekoizpena).

1.- Fitxa bete.

2.- Testuaren zirriborroak eman.

3.- Azken ekoizpena eman.

FITXA

1.- Taldekideen izenak

1.-

2.-

3.-

4.-

2.- Gaia

3.- Narratzaile mota

Narratzailearen ezaugarriak behinenak

4.- Pertsonaiak

1.-

2.-

3.-

4.-

5.-

5.- Ipuinaren egitura

HASIERAKO EGOERA		
KORAPILOA	ARAZOA	
	EKINTZAK	1.-
		2.-
		3.-
		4.-
		5.-
		6.-
		7.-
		8.-
	KONPONBIDEA	
BUKAERAKO EGOERA		